BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3483

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 13koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko proiektuetarako 2011ko diru-laguntzak eman eta ukatzen dituena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2010eko azaroaren 24ko Ebazpenaren bidez, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko proiektuetarako diru-laguntzetarako deialdia egin zen 2011rako (2010eko abenduaren 17ko EHAA, 241. zk.).

Ebazpen horren 14.1. artikuluan ezartzen denez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak ebazpen adierazi bat hartuko du bekak emateko eta ukatzeko, eta ebazpena banan-banan jakinarazteaz gain, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Deialdi honetan, aipatu ebazpenaren 14.3 artikuluan aipatzen den ordezkorik ez da izendatuko, zeren eta ebazpen honen I. eranskinean zerrendatuta dauden proiektuek baino ez dute gutxieneko puntuazioa gainditu.

Adierazitakoagatik, Hautaketa Batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- I. eranskinean zerrendatzen diren argitalpen-proiektuei diru-laguntzak ematea, bakoitzari zehaztutako zenbatekoaren arabera. Orotara, hemeretzi mila eta hogeita bost euro eta hirurogeita zortzi zentimo (19.025,68) emango dira. Esleitu gabe utzi dira bederatziehun eta hirurogeita hamalau euro eta hogeita hamabi zentimo (974,32).

Bigarrena.- II. eranskinean zerrendatzen diren argitalpen-proiektuei laguntzak ukatzea, adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.- Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea.

Laugarrena.- Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Beraz, ebazpenaren aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 13a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

I. ERANSKINA

Argitalpen-proiektu onuradunen zerrenda

Esp.	Eskatzailea	Proiektuaren titulua	Diru kopurua (€)
P7/2011	UPV/EHU	Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturraran durante la Guerra Civil española y la primera posguerra. Hacia la recuperación de su memoria.	10.100,00
P6/2011	Universidad de Deusto	El cuidado en el siglo XXI: ¿un trabajo de mujeres? Un análisis en profundidad de las experiencias de maternidad, paternidad y conciliación en la CAE.	4.934,00
P1/2011	UPV/EHU	Berdintasuna Gasteizko Irakasle Eskolan. Ikasleen ikuspegia.	3.991,68

II. ERANSKINA

Ukatzen zaien argitalpen-proiektuen zerrenda

Esp.	Eskatzailea	Proiektuaren titulua	Arrazoia
P2/2011	EHLABE	Estudio cualitativo sobre la situación laboral de las mujeres con discapacidad intelectual y/o trastorno mental.	01
P3/2011	UGT Euskadi	Repercusión de la crisis económica en la consolidación de las medidas de igualdad en las empresas de Bizkaia.	02
P4/2011	Universidad de Deusto	Living and working on the edge: women migrant workers in the Basque Country and in Massachusetts, USA.	01
P5/2011	M3O S. Coop. Pequeña	Soft Fiction	03
P8/2011	Edurne Bengoechea Sorozabal	Las estrategias para la incorporación de la perspectiva de género en la cooperación. Análisis crítico global y aplicación en lo local: La cooperación vasca.	01

Ukatze-arrazoiak:

01: Argitalpenari buruzko edukia osatu gabe dago.
02: Deialdian eskatzen den gutxiengo puntuazioa lortu ez izana.
03: Deialdiaren xedearen barruan ez egotea.